

## **JMA, ADEGIKO ZUZENDARI NAGUSIA** ***Ekonomia Egoeraren Inkestaren Prentsaurrekoa*** ***2026eko maiatzaren 27a***

Egun on eta ongietorriak, bihar egingo dugun Urteko Batzarraren eta Enpresa Egunaren bezperan antolatu dugun prentsaurreko honetara.

Gaur gure azken inkestaren emaitzak aurkeztera natorkizue, eta hasieratik argi hitz egin behar dut: esku artean ditugun datuek kezka gero eta handiagoa eta Gipuzkoako enpresa-sarean joera aldaketa kezagarria erakusten dute.

Prentsa-oharraren titularrak ondo jasotzen du enpresek helarazi digutena: beren merkatuen okertzeak kezka eta ezkortasuna handitu ditu Gipuzkoako enpresen artean.

Gaur aurkezten ditugun datuek azken hilabeteetan enpresek sumatzen ari diren errealitatea erakusten dute: egoera ekonomikoaren pixkanakako okertzea eta ziurgabetasunaren hazkunde argia.

Orain arte moteltze gisa ikusten genuena ezkortasun nabarmen bihurtu da gaur egun. 2021eko apiriletik lehen aldiz, beren merkatuak atzeraldian daudela uste duten enpresen kopurua (%23,5) susperraldia ikusten dutenena (%21,5) baino handiagoa da. Azken bost urteetako konfiantza-erregistrorik txarrenak ditugu aurrean.

Industria da, gure lurraldearen motorra, gehien sufritzen ari dena. Fakturazioaren beherakadak, eskaera-zorroaren ahultzeak eta enpresa-ezkortasunaren hazkundeak gogor eragiten diete gure ekonomiarentzat eta esportazio-gaitasunarentzat estrategikoak diren sektoreei, hala nola makineria eta ekipamenduaren jarduerari.

Beraz, klima ekonomikoaren aldaketa baten aurrean gaude.

Batez besteko fakturazioa %1,4 jaitsi da hiruhilekoan. Industria-enpresen heren batek baino gehiagok salmentak gutxitu direla ikusi dute. Eta industrien %40k gaur egun uste du eskaera-maila ahula dela, zenbait kasutan 2021eko unerik zailenetatik ikusten ez genituen erregistroekin.

Hala ere, elementu garrantzitsu bat azpimarratu nahi dut: Gipuzkoako enpresek erresistentzia eta konpromiso gaitasun handia erakusten jarraitzen dute.

Ingurunea okertu arren, enpresen %87,5ek aurreikusten du plantillak mantendu edo handituko dituela. Horrek esan nahi du gure enpresek enpleguaren, sustraitzearen eta lurraldearen etorkizunaren aldeko apustua egiten jarraitzen dutela.

Aurreikuspenek 2026an 1.000 eta 2.000 enplegu garbi artean sortzea ere iradokitzen dute, bereziki zerbitzuetan eta eraikuntzan. Nolanahi ere, otsailean egiten genituen estimazioak baino txikiagoa da kopurua.

Albiste positiboa da, eta baloratu egin behar dugu, baina zuhur jokatu behar dugu, joera orokorrak moteltze argia erakusten duelako.

Enpresen kezkek ere intentsitatea eta lehentasuna aldatu dituzte.

Lehen postuan berriro lehengaien eta energiaren kostua eta hornidura agertzen dira, dagoeneko enpresen erdiei baino gehiagori eragiten baitie. Horri gehitu behar zaizkie lan-kostu handiak, tentsio geopolitiko eta komertzialak, nazioarteko ekonomiaren ahultasuna eta lan-absentismoaren hazkundera.

Datozen hilabeteetarako aurreikuspenek ez dute, oraingoz, baikortasunerako arrazoi handirik ematen. Enpresek ez dute berehalako hobekuntzarik ikusten eta zuhurtzia eta ezkortasun jarrerari eusten diote.

Horrek guztiak enpresen lehiakortasunerako agertoki konplexua marrazten du.

Eta testuinguru honetan, Adegik hiru mezu oso argi helarazi nahi ditu.

Lehenengoa: egonkortasuna eta konfiantza behar ditugu.

Enpresek epe ertain eta luzera hartzen dituzte inbertsio, kontratazio eta berrikuntza erabakiak. Horretarako, arau-egonkortasuna, segurtasun juridikoa eta jarduera produktiboa sustatuko duen ingurune ekonomikoa behar dituzte.

Bigarrena: gure industria-lehiakortasuna indartu behar dugu.

Industria Gipuzkoaren funtsezko zutabea da oraindik ere. Industria-eraldaketa lagunduko duten politikak behar ditugu, berrikuntza sustatuko dutenak, inbertsioa erraztuko dutenak eta energia- eta lan-kostuei aurre egiten lagunduko dutenak, beste lurralde batzuen aurrean lehiakortasuna galdu gabe.

Eta hirugarrena: inoiz baino gehiago elkarlanean aritzeko unea da.

Erakundeek, enpresek, eragile sozialek eta gizarteak arduraz eta ikuspegi partekatuarekin jardun behar dugu. Gipuzkoak historikoki erakutsi du une zailei elkartuta erantzuten dakiela. Eta ziur nago berriro ere hala egingo dugula.

Horri guztiari buruz hitz egingo dugu Enpresaren Egunean.

Ez gaude alarma egoera baten aurrean, baina bai oso serio hartu behar dugun abisu-seinale baten aurrean.

Enpresek babesa, konfiantza eta baldintza egokiak behar dituzte enplegua, inbertsioa eta ongizatea sortzen jarraitzeko.

Adegitik, egonkortasunaren eta gure industriari emandako babes irmoaren aldeko deia egiten dugu. Gipuzkoak historikoki bere erresilientzia erakutsi du, baina ziurgabetasun-ziklo hau gainditzeko, aberastasuna eta enplegua sortzen dutenen lehiakortasuna sustatuko duen ingurunea behar dugu.

Eskerrik asko guztioi. Mila esker.